



BAT-BATEKO TALDEAK

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. EZAUGARRIAK.....	3
3. HELBURUAK.....	3
4. ZABALPENA ETA MATRIKULAZIO KANPAINA.....	4

1. SARRERA

Bat-bateko taldeak hezkuntza arautua eta bertso eskolen arteko zubia dira. Lehen Hezkuntzan bertsojaritzara hurbilpena egin duten gaztetxoak eta bereziki gustura egon direnak, bertsojaritzan sakontzeko aukera dute bat-bateko taldeen bitartez, DBH-n. Talde txikiagoetan, eta eskolaz kanpoko ekintza moduan, bertso zaletasunari bide eman, eta bertsoetan bat-batean hasteko aukera dute ikasleek.

2. EZAUGARRIAK

Bat-bateko taldeak izaera ludikoa dauka, bertsojaritza lantzea izango da eginkizun nagusia, beti ere liburu barik eta ariketa praktiko, dinamiko eta jolasetan oinarrituta.

Izenak berak definitzen duen moduan bat-batean aritzeko lehenengo pausuak emango dira eta horretarako taldearen tamaina egokia 5-10 ikaslekoa izan daiteke. Iraupena eta maiztasunari dagokionez berriz astean behin ordu beteko klaseak izatea proposatzen dugu.

Ikasle bakoitzaren gogo eta erritmoak errespetatuz, Bertsozale Elkartek eskaintzen dituen ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera izango dute: gaztetxoaren sariketetan, negu zein udako barnetegietan, Euskal Herri mailan egiten diren udalekuetan edo eskolatik plazara moduko ekimenetan...

3. HELBURUAK

Bat-bateko taldeen bidez helburu anitz lortuko da:

- I. Gaitasun mailan:
 - Bertsojaritza den kultur adierazpidearekiko oinarritzko ezagutza izatea
 - Bat-bateko lehenengo pausuak ematea.
 - Bertsozaletzea eta euskararekiko jarrera positiboa garatzea.
 - Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia garatzea
 - Jende aurreko emanaldi bat burutzeko oinarritzko betekizunak ezagutzea eta egoki baliatzea
 - Talde lanean jarduteko gaitasuna lantzea

- II. Ikastetxe/herri mailan:
 - Euskararen normalizazioan laguntzea.
 - Euskarazko aisialdia sortzea.
 - Ikastetxean/herrian bertsozaletasuna eta bertsojaritza sustatzea.

- Ikastetxeaz kanpo umeek jarraipena ematea zaletasun horri beren inguruan.
- Bertsoaren ekosistema elikatzea. Bertsolari gaztetxoak bat-batean trebatuz handik Bertso eskoletara saltoa emango dute.

4. ZABALPENA ETA MATRIKULAZIO KANPAINA

Orain arte bertsolaritzako irakasleek hezkuntza arautuko 6.mailan gelaz gela animatzen izan dituzte ikasleak hurrengo urtean bertsolaritzan segi dezaten.

Zabalpena egiteko modu honi eraginkorrena dela deritzogun arren, matrikulazio kanpaina indartu egingo da.

Alde batetik ikastetxeei beraien laguntza eskatuko diegu ikasle eta gurasoengana heltzeko beraien esku dauden bideak erabiliz.

Bestalde bertso topaketan bat-bateko taldeko partaideek emanaldi bat egingo dute LH-ko ikasleak hurrengo ikasturtean bat-bateko taldean parte hartzerantz animatuz.

Gure aldetik komunikazio kanpaina bat bultzatzeko konpromisoa hartuko dugu EH, herrialde eta tokiko komunikabideetan.